


MITOLOGIAK

MUNDUA KONTATU



08.07-09.11.2026

EUSKARAZ

MUNDUA

KONTATU

Suaren inguruan xuxurlatutako lehen istorioetatik hasi eta testu eta irudietan itzulitako epopeia handietara, mitologiak gizateria laguntzen du bere galdera sakonenen miraila gisa. Ez dira ez entretenimendu huts ez eta iragan desagertu baten aztarna ere: hizkuntza sinboliko bat osatzen dute, oraindik bizirik dena, haren bidez gizarteak munduaren jatorria, emazteen eta gizonen lekua unibertsoan edo patua gobernatzen duten indar ikusezinak azaltzen saiatzen dira.

Zibilizazio bakoitzak bere mitoak sortzen ditu, eta hauek batzuetan ipuin edo kondaira bilakatzen dira. Jainko mainontziek, heroi ausartek, izaki gaiztoek eta indar kosmikoek betetzen dituzte oinarrizko kontakizun horiek, poema, erlijioa eta filosofiaren bidegurutzean. Horien bidez, gizakiak bere beldurrak, itxaropenak, balioak eta kontraerreak proiektatzen ditu. Belaunaldiz belaunaldi transmititua, mitoak sorkuntzaz eta suntsipenaz, maitasunaz eta gerraz, transgresioaz eta jakinduriaraz mintzatzen dira. Eguneroko esperientzia gainditzen duenari forma ematen diote.

Amerikatik Ozeaniara, Afrikatik Asiara, Mediterraneoaren bazterretatik Pirinioetako gailurretaraino, erakusketa honek milaka urtez irudimena elikatu duten unibertso mitologikoetan zehar bidaia proposatzen du.



“Mitoa ele bat da”

Roland Barthes

Historiaurreaz geroztik kontatuak, mitoak zabaldu eta garatzen dira, transmititzen dituzten gizarteekin batera. Haatik, jatorri komunak bereizten dituzten mendeak gorabehera, kontakizun horietako anitzek gaur egun ere “kolore” batzuk partekatzen dituzte.

Kolore horiek, kontakizunen oinarritzko zatiez osatuak, bereziki inspirazio iturri izan dira mitologiak irudikatzen dituzten tradizio ikono-grafiko desberdinentzat. Hainbestearino, non herri batek garai jakin batean sortutako irudi batzuk mende batzuk geroago beste kontinente batean ulertu eta interpretatzen ahal direla ematen baitu.


“Logika horrek kaleidoskopio baten moduan funtzionatzen du : zati eta puska ttipiak ere badituen tresna bat, zeinen bidez antolamendu estrukturalak eratzen diren”


Claude Lévi-Strauss antropologoak definitutako eredu horri segituz, kaleidoskopio mitologiko handi batean zehar ibiltzera gomititzen zaituztegu. Louvre museoarekin lankidetzan sortua, eta Quai Branly – Jacques Chirac Museoaren ekarpen bereziari esker, erakusketa honek, mailegu eskuzabal multzo bati esker, elkarrizketan ezartzen ditu Mesopotamiako eta antzinako Irango mitoak, Egipto faraonikoarenak, Grezia eta Erromakoak, Euskal mendietakoak eta Gaskoiniako Landetakoak, Mexiko prehispanikokoak, Japoniakoak, Australiako lurralde aborigenetakoak eta Mendebaldeko Afrikako kostaldeetakoak.

Hemen aurkezten diren obra apartak zati eta puska ugari dira, elk-arrekin antolatu eta elkarrizketan ezartzen direnak, gure gizatasun komunaren lekuko diren mito handietako batzuk, beren erara, zuei kontatzeko.



ERAKUSKETA PLANOA





I.

JATORRIZKOAK

Mundua nola bilakatu da gaur dena? Askotan, mitoek denaren hasieran zen ozeano zabal bat aipatzen dute, batzuetan iluntasuna eta isiltasuna, eta beste batzuetan jatorrizko arroltze bat. Hainbat kontakizunek lehen izaki baten, edo hainbat izakiren, iratzartzea aipatzen dute. Pentsamenduaren, keinuaren edo ahotsaren bidez, lurra eta zerua sortzen dituzte lehen garaietan. Sugeak, hegaztiak, behiak edo lehoi erraldoiak usu elkarrekin borrokan agertzen dira antzinako aro horietan. Haien borrokek mendiak eta haranak, aintzirak eta ibaiak, leizeak eta basamortuak sortzen dituzte.

Kontinente guzietan, mitoek kontatzen dute nola, gero, landareak, animaliak eta gizakiak Lurraren sakonetik azalera atera eta han ugaltu ziren. Beste batzuek deskribatzen dute nola izaki lehen horiek jainko harroak haserretu zituzten, eta hauek uholde handien bidez menderatu ziren. Orduan, eguzkiaren ibilbidea ziurtatzen eta ordena kosmikoa mantentzen duten jainkoen jainkozko ahaleginak ohoratzea ezinbestekoa bihurtzen da.



II.

NATURAZ GAINDIKOAK

Mitoek hainbat puntuetan bat egiten dute, hala nola munduaren lehen aroetan herri bitxiak existitzen zirela erratean. Gizon-buruko zezenak eta zezen-buruko gizonak, emazte-buruko bisonteak eta bisonte-buruko emazteak; bi hegal, hiru aurpegi, lau hanka eta antilope basatien adarrak zituzten izakiak; karramarro-pintzadun tximinoak, zeinen hankak arrain-isatsez bukatzen diren; eta are munstroagoak diren beste izaki batzuk, espiritu on edo deabru gaizto, sorkuntzako espezie guzien formak eta gorputz-adarrak hartzen dituztenak.

Era berean, ohikoa da izaki horiek guziak izaki goragokoen menpe egotea, lur osoan presente direnak: jainko hilezkorrak, gizakien patuan eragiteko ahalmena duten indar apartak. Hala ere, batzuek ez

dute jainkoen agintea errespetatu nahi izaten. Erraldoi ikaragarri eta ahaltsuek jainkoen kontra borrokatzera ausartzen dira, mendeetan zehar luzatzen diren gerra izugarrietan. Baina beti, jainkoek lortzen dute garaipena. Eta mundu osoa haien haserrearen beldurraren menpe gelditzen da.



III.

APARTEKOAK

Mitologia guzietan, gizon eta emazte gutti batzuek harreman fisikoak izaten dituzte jainko batzuekin edo beste izaki naturaz gaindikoekin. Haien batasunetik, normalean, patu berezi eta paregabea duten haur apartekoak sortzen dira : heroi legendarioak dira, zeinen egintzek saga, balentria eta epopeia ugari inspiratzen dituzten.

Herriak beren abenturak dantzaren bidez ospatzen dituzte eta haien probak erritoen bidez berrerreproduzitzen dituzte, batzuetan keinu sinpleen bidez soilik ere bai, egiazko heroi batek bakarrik baitu gaitasuna dragoia ikaragarria menderatzeko eta ordena kosmikoaren egonkortasuna bermatzeko. Haiek desagertu eta askoz geroago ere, lurra eta gizateria haien egintza zoragarriek markatuta gelditzen dira. Batzuk haien omenezko kultu batean gurtuak izatera ere heltzen dira. Baina, usu, haien heriotza tragikoa ez da egiazko heriotza ; erbeste huts bat da, ikusgaitz den beste mundu batean hartutako atsedeen luze bat. Eta egunen batean, unea heltzean, askok diote itzuliko direla zapalduen askatasuna ematera, tiraniatik eta zorigaitzetik.

ERAKUSKETA KATALOGOA



Mitologiak erakusketaren katalogoak mito-legenden transmisioaren alderdi zentral bat aztertzen du, ahozko eta idatzizko hitzetik irudira egindako trantsizioa, bai iraganean bai gaur egun.

Mitoek ez dute iraganekoak soilik: gure irudimena moldatzen eta gure gaur egungo ikuspegia informatzen jarraitzen dute, pentsamendu unibertsala eta subjektibitate indibidualak elkar nahasten eta ehunduz.

320 orrialde; 22 cm × 16 cm; frantsesez

Prezioa: 35 euro

BISITA GIDATUAK

Mitologiak erakusketarekin lotutako gela guztietan zain dituzte jainkoek, heroiek eta munstroek.

Jarraitu gida batekin sortzaile mitoei buruzko ibilbidea, museoaren bildumak ikuspegi berri batean berriz aurkitzeko.

Ordu bateko bisita, bost mila urteko kondairak.

Asteazkenero 15:30 etan; frantsesez

Sarrera txartelari 4 euro gehitu

Aurkitu programa guzia web gunean
www.mbh.bayonne.fr



Erakusketa hau Bonnat-Helleu Museoa, Baionako Arte Ederren Museoa, Louvre Museoa eta Quai Branly – Jacques Chirac Museoko lankidetzak bereziari esker ekoizten da.

B Bonnat
Helleu
Museoa
BAIONA



MUSÉE DU QUAI BRANLY
JACQUES CHIRAC

Erakusketa arduradunak:
Benjamin Caule eta Barthélemy Etchegoyen
Glama (Bonnat-Helleu Museoa),
François Bridey eta Dominique de Font-Réaulx
(Louvre Museoa).

Nahi aldiz guziz itzuli!
Harpidetza 20 eurotik aurrera

Bonnat-Helleu Museoa
5 Jacques Laffitte karrika
64100 Baiona

Ordutegia:
Egunero irekita, asteartean baizik. 10:00 etatik
19:00 etara eta ostiraletan 12:00 etatik 21:00 etara.

Le Monde

Télérama

Le Journal
des Arts

l'œil

ici
Radio
TV
Digital

new
culture